

"Kotxe lasterketen mundua ezegonkorregia da"

Daniel Cortes kotxe lasterketetan parte hartzen duen donostiar bakarra da. Hemeretzi urteko bidebieta-rra, kartekin hainbat urte igaro ondoren, Toyota Formularen dabil gaur egun.


Raul Perez

Nolatan hasi zinen kotxe lasterketetan?

Aita eta osaba aspalditik motorraren munduan dabil-tza. Zazpi urterekin kart bat oparitu zidaten eta Tuteran aldera joaten nintzen gidatze-rra. Hamalau urte nituela, lasterketa batean parte hartu nuen lehen aldiz eta hiru urte kartetan eman eta gero, Toyota Formulara jauzia eman nuen.

Nola moldatzen zara kirol honetan?

Egia esan, ez da batere erraza, tamalez Hego Euskal Herrian ez baitugu inongo zirkuitorik. Ni Pabera joaten naiz hilean behin kamioi batean, kotxea eramateko,



Daniel Cortesek hiru urte daramatza Toyota Formularen.

eta hango zirkuitoan egun osoa pasatzen dut. Izan ere, entrenamendurik gabe, jai dugu! Hala ere, zaila da Bartzelona, Valentzia edo Madrilgo gidarien parean izatea, han zirkuitoak oso gertu dituztelako eta beraz, kotxea hobeto ezagutzeko aukera dutelako.

Kotxea mantentzea eta zirkuitoetara joatea garestiegia da, ezta?

Telebistarik gabe zaila da babesleak erakartzea. Nik lagunak babesa izaten dut eta horrez gain, aurten Kultur eta Turismo Ekintzetxearen laguntza ere lortu dugu. Ez da kirol merkea, baina dena den, dirua jasotzen dugu lasterketetan parte hartzeagatik, eta kotxeak kolpe larririk jasotzen ez badu, nahikoa iza-

ten da behar bezala mantentzeko.

Noiz izango duzu hurrengo mailara igotzeko aukera?

Hori zaila da, diruak garrantzi handia du eta. Maila batetik bestera alde ederra dago. Ni orain 100 zaldidun kotxearekin ari naiz eta hurrengo mailako kotxeek, aldiz, 200 zaldi dituzte eta zailagoak dira gidatzen. Hurrengo mailak Super Toyota Formula du izena eta kotxea erosteko, bost milioi t'erdi behar dira.

Zein ezaugarri izan behar du gidari on batek?

Nire mailako lasterketak 45 minutukoak dira, hama-bost bat itzuli ematen dizkiogu zirkuitoari eta aintzat hartu behar da txapelketa

egin baino bi egun lehenago han egon behar dela: ostegun-ean eta ostiralean entrena-mendu saioak egiten ditugu eta larunbat eta igandean, berriz, lasterketak. Nik hiru kilo inguru galtzen ditut lasterketa bakoitzean. Gorputzean duen eraginaz gain, tentsio handiko kirola da hau.

Kirol honetan jarraitzeko asmorik al duzu?

Iaz unibertsitateko ikasketak hasi nituen eta lehentasuna azterketei eman diet. Kotxe lasterketeen mundua oso ezegonkorra da, ez dago sekula esaterik etorkizuna nolakoa izango den eta hori dela eta, ez ditut ikasketak baztertu nahi. Gidarien arteko giroa oso gogokoa dut eta horrexegatik, bi eginkizunak

«Hiru kilo galtzen ditut lasterketa bakoitzean»